

## **“Biztanleria asko ez bada handitzen ez dira etxe gehiago behar”**

### **Raimundo Sagarzazu, Zumaiako herritarra**

Raimundo Sagarzazuri Zumaia 2050. urtean nola izan den buruzko elkarrizketa bat egin dut eta hemen azpian daude bere erantzunak.

### **2050ean turismoa handitu edo txikitu egingo dela uste al duzu?**

Txikitu ez, handitu egingo da pentsatzen dut.

### **Biztanleria asko handituko dela pentsatzen duzu?**

Asko ez dut uste.

### **Denok dakigun bezala, mundu osoan klima aldaketak gertatzen ari dira, hori dela eta, klima asko aldatuko dela uste duzu?**

Zertxobat bai.

### **Klima aldaketa hauekin itsasoa igo egingo dela uste al duzu, eta horrela bada, noraino?**

Gehienez 30 zentimetro, ez dut uste hainbeste izango denik ere ez.

### **Herriak beste etxe batzuk eraiki eta handitzen joango zela uste duzu edo orain duen tamainaren antzera egongo dela uste al duzu?**

Antzera izango da, biztanleria asko ez bada handitzen ez dira askoz ere etxe gehiago behar.

### **Etxe gehiago eraikiz eta lurralde gehiago hartuz, ekonomian ere aldaketak egongo ziren, ekonomia asko aldatuko dela uste al duzu?**

Ez dut uste.

Eskerrik asko elkarrizketa honengatik.

Ez horregaitik.